



ORIOKOU DALA

ORIOKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2023

HITZAURREA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, 8. artikuluan ezartzen du herri administrazioek dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituztela hura aplikatzean lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar izango duten epea, aurreikusitako kostuak eta horien finantza bideak; betiere, aurrekontu egonkortasunaren helburuak bete-tearen baldintzapean.

Era berean, lege horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du aipatutako artikulua oinarritzkoa dela eta herri administrazio guztiek aplikatu behar dutela.

Beste alde batetik, esandako Lege horren hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du arauzko lege arauetan aurreikusitako herri politikei dagozkien Plan eta Egitarauak dirulaguntzen plan estrategikotzat hartuko direla.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, hamazazpigarren xedapen gehigarrian esaten du kontu-hartzaitzari dagokiola plan estrategikoen aplikaziotik ondorioztatutako emaitzak kontrolatzea eta ebaluatzea.

Azkenik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III kapituluko, 1. atalak, plan estrategikoen printzipioak, eremua, edukia, onartzeko-kompetentzia eta jarraipena arautzen ditu 10 artikuluan eta hurrengoetan; baita beren ez bete-teak izan ditzaketen ondorioak ere.

Arazko eta legezko agindu hau bete ahal izateko Oriko Udalak dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen du, eta ondorioz jarraian datozen artikulua.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Oriko Udalak denboraldian zehar emango dituen dirulaguntzak ondorengo araudia beteko dute: dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, bere araudia, dirulaguntzen emakida arautzen duen udal ordenantza, ondorengo plan estrategikoa, sinatu ahal diren tokian tokiko hitzarmenak eta dirulaguntzen urteroko deialdietako oinarriak.



2. artikulua.

Dirulaguntzak emateko, aldez aurretik urte bakoitzeko aurrekontuetan banatu beharreko diru-kopuruak aurreikusita egotea eta deialdia, dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriekin batera, onartzea eskatzen du.

3. artikulua.

Dirulaguntzak emango ditu baldin eta aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzen baditu; hortaz, onartzen dituen aurrekontu kopuruak eta dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri arauak uneoro egokituko zaizkie helburu horiei.

4. artikulua.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du esan nahi eskubideren bat sortzen dela onuradun izan daitezkeen alde, izan ere, horiek ezingo dute eskatu kalte-ordainik edo ordainik, Udalak Plana praktikan jartzen ez badu bere horretan.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publikitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenean emateko aukera alde batera utzi gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

— Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitatearen eta kalitatearen aldetik justifikatu beharko delarik.

— Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzeko direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Eta, berariaz, Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:

* Plana termino sozialetan justifikatzea.

* Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.

- * Finantza gaitasuna.
- * Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

6. artikulua.

Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

Dirulaguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik, gastua onartu beharko da Oriko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

Dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

7. artikulua.

Plan honetan eta haren eranskinetan zerrendatuta datoz Oriko Udalak kudeatu beharreko dirulaguntzen lerro edo programa guztiak.

Dirulaguntza lerro edo programa bakoitzean hauek zehazten dira:

- Programaren deskribapena.
- Gaia.
- Lortu nahi diren helburuak.
- Emakida mota(Konkurrentzia, hitzarmena,...).
- Aurreikusitako kostuak.
- Finantziazioa.

8. artikulua.

Dirulaguntzak ematen dituzten udal departamentu beste eranskin ditu Plan honek.

9. artikulua.

Finantzazioa Udalaren funts propioen bidez egingo da, Udalaren aurrekontuko laugarren kapituluan zordunduta edota bere kasuan zazpigarren kapituluan, baina laguntza ekonomikoa eskatu ahal izango zaie beste erakundeei, dirulaguntza ildo honekin zerikusia duten jarduerak egiteko argitaratzen dituen dirulaguntzetarako deialdien barruan.



II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

10. artikulua.

Oriko Udalak dirulaguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo entitate pribatuei, batetik, onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak egitea bultzatze aldera, eta bestetik, udal eskumeneko helburu publikoak lortzea sustatze aldera.

11. artikulua.

Oriko Udalak dirulaguntzak emango ditu urtero, hainbat udal dirulaguntza lerrotan, ondorengo eskumen arloetan: kultura, gaztedia eta festak; euskara eta hezkuntza; berdintasuna eta gizarte ongizatea; hirigintza; ingurumena, obrak eta zerbitzuak; kirolak; sektoreak, turismo eta merkataritza; eta alkatetza.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

12. artikulua.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, dirulaguntzak ematen dituzten departamentuek txosten arrazoitua eskatuko diete dirulaguntzak jasotzen dituztenei. Egindako ekintza kopurua eta dirulaguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira txosten horretan.

13. artikulua.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

— Helburua.

— Dirulaguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, erakunde laguntzailea.

— Dirulaguntzaren zenbatekoa.

— Dirulaguntzarekin egindako ekintza zehatzak.

- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diruz lagundutako ekintzen edo programen diru - sarrera / gastu - irtera zerrendatua eta dagokien faktura edo justifikanteak.
- dirulaguntza ematen duen departamentuaren balorazioa, laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotasunari buruz.

IV. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN KONTROLA

14. artikulua.

Arlo kudeatzaile bakoitzeko Batzordeburuak kontrolatuko du plan hau betetzen dela berau indarrean dagoen bitartean.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, txostena-Memoria aurkeztu beharko du bere Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan dirulaguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak, eta, horrekin batera, hurrengo dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Aipatutako Plan Estrategikoaren aplikazioak eragindako emaitzen kontrola eta ebaluazioa udal kontu-hartzaileak egingo du.

I ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: KULTURA, GAZTEDIA ETA FESTAK

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0608.481.01.334.40 2021 ----- LAGUNTZA: EKINTZA KULTURALAK	26.000,00	Helburua: finantzatzea 2021 urteko programen garapena eta irabazi asmorik gabeko Orioko elkarten proiektu kulturalak. Helburu zehatza: bermatzea beharrezko finantzazioa 2021eko urteko programak garatzeko eta irabazi asmorik gabeko Orioko elkarte kulturalaren proiektuak.	2021/2023
1 0617.481.01.337.20 2021 ----- LAGUNTZA: GAZTEDIA EKINTZAK	19.000,00	Helburua: finantzatzea 2021 urteko programen garapena eta irabazi asmorik gabeko Orioko elkarten gaztediako proiektuak. Helburu zehatza: bermatzea beharrezko finantzazioa 2021eko urteko programak garatzeko eta irabazi asmorik gabeko Orioko gaztedi elkarten proiektuak.	2021/2023
1 0612.481.01.338.00 2021 ----- LAGUNTZA: AUZOKO JAIK	3.000,00	Helburua: 2021an irabazi asmorik gabeko Orioko auzokide elkarteek antolatutako auzo festak finantzatzea. Helburu zehatza: bermatzea beharrezko finantzazioa auzoko festak antolatzeke irabazi asmorik gabeko Orioko auzokide elkarteak.	2021/2023



II ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: EUSKERA ETA HEZKUNTZA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0606.481.04.335.40 2021 ----- LAGUNTZA: UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA	30.000,00	Laguntza herriko komunikabideen sustapena egiteko.	2021/2022
1 0606.481.01.335.20 2021 ----- LAGUNTZA: EUSKARA EKINTZAK	924,00	Laguntza euskara arloan mugitzen diren elkarteei programa eta ekintzak garatzeko.	2021/2023
1 0606.480.02.335.30 2021 ----- LAGUNTZA: EUSKARA IKASTEIA	3.000,00	Laguntza euskara ikasteko. Helburua da euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea.	2021/2023
1 0606.471.01.335.30 2021 ----- LAGUNTZA: EUSKARA IRUDIA ETA PAISAIA	1.000,00	Helburua da herriko establezimenduei laguntza ematea euskara txertatzeko errotulo eta irudi korporatiboetan, hala nola web orrialdetan.	2021/2023
1 0606.471.02.335.30 2021 ----- LAGUNTZA: EUSKARA ERABILERA	300,00	Helburua da euskararen erabilera herrian neurtzea.	2021/2023
1 0606.421.03.335.20 2021 ----- LAGUNTZA: UEMA	12.806,00	Helburua da aztertzea, kanalizatzea eta koordinatzea hainbat erakunderen esfortzua eta jarduerak, bai publiko bai pribatu arloan, hizkuntza-normalkuntzaren arloan.	2021/2023
1 0606.412.01.335.20 2021 ----- LAGUNTZA: EUSKO IKASKUNTZA	300,00	Laguntza honen helburua euskaldun Gizartearen eta kulturaren biziraupena eta sendotzea da, horrek duen garrantziaren kontziente diren elkarten hausnarketa, azterketa, formazioa eta dibulgazioaren kohesioan aldaketa eta modernazioa bultzatzen duten ekintzen bitartez.	2021/2023
1 0606.421.02.335.20 2021 ----- LAGUNTZA: UKUE-Euskara	22.862,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin Euskararen sustapena eta erabilera bultzatzen dituzten proiektu eta zerbitzuak bertaratzea eta garatzea.	2021/2023
1 0605.481.01.324.00 2021 ----- LAGUNTZA: ORIOKO HERRI IKASTOLA	158.331,00	Laguntza honen helburua da euskara eta euskal-kultura eta nortasuna hezkuntza proiektu baten bidez landu eta garatzea, Orioko herriaren oinarritzat hartuz (2 eta 16 urte artean).	2021/2023
1 0605.481.012.324.00 2021 ----- LAGUNTZA: ZARAGUETA ESKOLA	47.194,00	Laguntza honen helburua da euskal hezkuntza publikoko saretik euskara eta euskal-kultura eta nortasuna hezkuntza proiektu baten bidez landu eta garatzea, Orioko herriaren oinarritzat hartuz (2 eta 12 urte artean).	2021/2023



Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0500.421.02.324.00 2021 ----- LAGUNTZA: UKUE-LANBIDE HEZIKETA	13.735,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin bertaratzea eta garatzea hainbat proiektu eta zerbitzu lanbide heziketa sustatzeko.	2021/2023
1 0605.481.03.326.00 2021 ----- LAGUNTZA: GARABIDE	2.000,00	Laguntza honen helburua da sustatzea garapen bidean dauden herrialdetako hizkuntza minoritarioak normalizatzen dituzten dituzten proiektuak bultzatzea.	2021/2023
1 0600.481.01.326.00 ----- LAGUNTZA: OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK	3.000,00	Helburua: haurren hezkuntza eta aisialdia beste modu batera antolatzeko moduak aztertu, teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako partehartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin.	2021/2023

III ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: BERDINTASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0801.480.04.231.30 2021 ----- LAGUNTZA: PREMIAZKO BEHARRAK	6.000,00	Laguntzak baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsona eta familiei bideratuta daude, aurre egiteko babes sozialeko sistema publikoren bidez estaltzen ez diren beharretarako.	2021/2023
1 0801.480.03.231.30 2021 ----- LAGUNTZA: GLL	70.190,00	Prestazio ekonomiko ez periodikoak, Eusko Jaurlaritzatik arautuak, baliabide gutxi dituzten pertsonentzat gastu espezifikoak aurre egiteko.	2021/2023
1 2019.480.03.231.30 2021 ----- LAGUNTZA: GLL COVID19	29.810,00	Prestazio ekonomiko ez periodikoak, Eusko Jaurlaritzatik arautuak, covid19arengatik baliabide gutxi dituzten pertsonentzat gastu espezifikoak aurre egiteko.	2021/2023
1 0803.481.01.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: ZUHAITZ ESPERIENTZI ESKOLA	6.000,00	Laguntza elkarteari beharrezko arreta eta asistentzia emateko, bizikidetza errazteko asmoarekin eta herrian parte hartze eta integrazio soziala bultzatzeko .	2021/2023
1 0803.481.07.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: CARITAS	6.000,00	Laguntzaren helburua da pertsonen urtean zehar hainbat arreta zerbitzu ematea; erakunde publikoak atenditu ezin dituzten babesak emateko.	2021/2023
1 0803.481.06.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: UDAKO PROGRAMA	3.000,00	Laguntzaren helburua da "oporrak bakean" eta "Chernobilgo lagunak" proiektuetan parte hartzen duten familia eta elkarteekin kooperatzea.	2021/2023
1 0803.481.05.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: SAN NIKOLAS HAURTZAINDEGIA	1.500,00	Laguntzaren helburua da urtean zehar sortzen zaien erreparazio gastuak, obra txikiak eta antzeko gastuak finantzatzea.	2021/2023
1 0803.480.02.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: TOKIKO FAMILIAK	18.700,00	Gizarte ongizatean bere jardura garatzen duten Tokiko familiei laguntza ekonomikoa ematea du helburu.	2021/2023



ORIOK UDALA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0803.481.04.231.60 2021 ----- LAGUNTZA: GIZARTE ONGIZATE ELKARTEAK	8.000,00	Gizarte ongizatean bere jarduera garatzen duten Tokiko elkarteei laguntza ekonomikoa ematea du helburua.	2021/2023
1 0802.481.01.337.10 2021 ----- LAGUNTZA: ZAHARREN ELKARTEA	11.300,00	Laguntzaren helburua da elkarteak urtean zehar antolaturiko ekintzak pertsona erretiratuentzat; elkarrizketak, aisialdiko tallerrak eta jarduerak finantzatzea. Guztia pertsona edadetuen ongizatea bermatzeko asmoarekin.	2021/2023
1 0803.481.08.231.60 ----- LAGUNTZA: PERTZETIK ELKARTE FEMINISTA	37.340,00	Laguntza Elkarteari finantzatzeko urtean zehar dituzten gastuak hainbat jarduera antolatzeagatik emakumeek ahalduzko prozesuetan sartzeko.	2021/2023

IV ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: HIRIGINTZA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0400.480.01.152.40 2020 ----- LAGUNTZA: IRISGARRITASUNA	5.000,00	Laguntzaren helburua da Jabekideen Komunitateei laguntza ematea igogailu komunitarioak instalatzeko.	2021/2023

ANEXO V

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: INGURUMENA, OBRA ETA ZERBITZUA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0405.421.02.162.10 2021 ----- LAGUNTZA: UKUE-Zabor bilketa	117.932,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin atenditzea herriko zabor bilketa zerbitzua.	2021/2023
1 0402.480.01.171.00 2021 ----- LAGUNTZA: ANIMALIEN BABESA	4.800,00	Laguntza honen helburua da herriko ahaten parkea atenditzea.	2021/2023

ANEXO VI

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: KIROLA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0608.471.01.342.40 2021 ----- MENDIBELTZ FUTBOL ZELAIA, BPXPORT	22.845,00	Laguntza honen helburua da Mendibeltz futbol zelaiaren kudeaketa integralak suposatzen duen defizita finantzatzea.	2021/2023



Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0609.471.01.342.10 2020 FRONTON, BPXPORT	9.211,00	Laguntza honen helburua da Pilotalekuko kudeaketa integralak suposatzen duen defizita finantzatzea.	2021/2023
1 0611.471.01.342.30 2021 ARRAUNETXE, BPXPORT	36.333,00	Laguntza honen helburua da Arraunetxeko kudeaketa zerbitzuak suposatzen duen defizita finantzatzea.	2021/2023
1 0614.471.01.342.20 2021 KARELA KIROLDEGIA, BPXPORT	141.114,00	Laguntza honen helburua da Karela kiroldegia kudeaketa integralak suposatzen duen defizita finantzatzea	2021/2023
1 0615.481.03.341.00 2021 LAGUNTZA: BERDIN BERDINAK	13.946,00	Laguntza honen helburua da Berdin Berdinak elkarteari laguntza ematea "Berdinduz" programa garatzeko.	2021/2023
1 0615.481.01.341.00 2021 LAGUNTZA: KIROL ELKARTEAK	54.250,00	Helburua da kirol elkarteei laguntza ematea ohiko jardueren gastuak finantzatzeko.	2021/2023
1 0615.481.02.341.00 2021 LAGUNTZA: KIROL-EKINTZAK	40.000,00	Helburua da kirol elkarteei laguntza ematea kirol ekitaldiek eta txapelketek sortzen dituzten gastuak finantzatzeko.	2021/2023
1 0615.481.05.341.00 2021 LAGUNTZA: ORIO ARRAUN ELKARTEA	82.830,00	Helburua da OAeri laguntza ematea arraunarekin loturiko herriko plan eta aktibitateak finantzatzeko. Hori guztia herrian kirol hori bultzatzeko helburuarekin eta arraunaren praktika federatua edota aisialdikoa bultzatzeko.	2021/2023

VII ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: SEKTOREAK, TURISMO ETA MERKATARITZA

Partida eta programaren azalpena	Aurreikusitako urteko kostea	Helburua	Epea
1 0500.421.02.241.00 2021 LAGUNTZA: UKUE-Enplegua	31.838,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin atenditzea hainbat proiektu eta zerbitzu enpleguaren sustapenari bideratuak.	2021/2023
1 1003.421.02.433.00 2021 LAGUNTZA: UKUE-enpresa garapena	102.500,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin atenditzea eta garatzea hainbat proiektu eta zerbitzu enpresa garapenari bideratuak.	2021/2023
1 1003.421.07.433.00 2021 LAGUNTZA: INNOBASQUE	305,00	Helburua da arlo guztietatik Euskadin berrikuntzak koordinatzea eta espíritu ekintzailea eta sortzailea bultzatzea eta sustatzea. Euskal gizartearen berrikuntzekin loturiko balore eta jarrerak elkarlanean sustatzea; horiek garatzen dituzten ekintzen bidez. Hori da, Euskadi berritzailearen irudia kanpoan zabaltzen dutenak, I+G+B ren polo aurreratua eta Euskal enpresen eta erakunden berrikuntzak sortuko dituzten dinamikak.	2021/2023
1 1003.471.01.431.50 2021	10.000,00		2021/2023



ORIOKOU DALA

<i>Partida eta programaren azalpena</i>	<i>Aurreikusitako urteko kostea</i>	<i>Helburua</i>	<i>Epea</i>
LAGUNTZA: MERKATARITZA ETA OSTALARITZA		Helburua da sustatzea herriko merkataritza eta ostalaritza, herriko merkataritza eta ostalaritza elkarteari lagundu eta laguntza teknikoa eskaini.	
1 1002.421.02.432.40 2021 LAGUNTZA: UKUE-Turismoa	19.848,00	Laguntza honen helburua da elkarrekin atenditzea eta garatzea hainbat proiektu eta zerbitzu turismo sustapenari bideratuak.	2021/2023
1 1002.471.01.432.40 2021 LAGUNTZA: Bixigu eguna	21.579,00	Laguntza honen helburua da turismo mailan "Bisiguaren Eguna" sustatzea; herria sustatu eta dinamizatzeko.	2021/2023

VIII ERANSKINA

DIRULAGUNTZA EMATEN DUEN DEPARTAMENTUA: ALKATETZA

<i>Partida eta programaren azalpena</i>	<i>Aurreikusitako urteko kostea</i>	<i>Helburua</i>	<i>Epea</i>
1 0100.421.05.454.00 2021 URKOME	6.248,00	Helburua dute landa lurra eta bere inguruaren garapena sustatzea hiru Lurralde Historikoetan. Urteko kuota.	2021/2023
1 0100.421.01.922.00 2021 EUDEL	1.503,00	Helburua du Toki autonomiaren defentsa eta Tokiko interesen irudikapen politikoa beste erakundeen aurrean. Urteko kuota.	2021/2023
1 0100.481.01.912.00 2021 ALDERDI POLITIKOAK	20.700,00	Apirilaren 2ko, 7/1985 Legeak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 73.3 artikuluan araututako dotazio ekonomikoa / Alderdi politikoen eskubide ekonomikoak bermatzea.	2021/2023
1 0100.421.04.922.00 2021 EUSKAL FONDOA	1.690,00	Helburua da Udalen eta beste Tokiko entitateen papera sustatzea eta indartzea agente aktibo bezala kooperazio deszentralizatueta eta bake prozesuetan, demokrazia eta elkartasuna garapen bidean dauden herrialdetan eta baita gure artean ere. Urteko kuota.	2021/2023